



Munduko emakumeen literatura SAIOAK: emakume afrikarren literatura (2024-2025)

Tailer honetan, Afrikako literaturako hainbat egileren berri emango da (ekoizpenean eta itzulpenean hain ezagunak ez direnak: Senegal, Nigeria edo Ekuatore Ginea bezalako herrialdeetako egileak maizago itzuli baitira. Gutxiago itzuli dira, berriz, Togo, Zambia edo Etiopiako egileak). Afrikako egileek idazten dutenean erabiltzen duten aniztasuna eta aberastasuna ezagutuko ditugu eta hondoan zer ezkututzen duten.

Helburuak:

- Idazle afrikarrak ezagutaraztea.
- Parte-hartzaileak Afrikako literaturaren ezaugarriei buruz prestatzea.
- Literatur kritikaren inguruko prestakuntza ematea parte-hartzaileei, hainbat literatur generoren bidez (poesia, antzerkia, kontakizunak, haur eta gazte literatura, autobiografia, komikia, nobela).
- Gogoeta egitea eta iritzi kritikoak sortzea.
- Afrikako egile nagusiak ezagutzea.
- Irakurzaletasuna piztea.

Edukiak: Kasu honetan, tailerrak 8 saio ditu, urrian eta maiatzean behin elkartuko baikara.

1) EMAKUME IDAZLEAK AFRIKAN

- Sarrera geografikoa eta soziologikoa (MAPA)
- Afrikako emakumeen literaturaren ikuspegi orokorra.
- Ahozko literatura: Griotteak (CD), ipuin kontalariak.
- Afrikako ipuinak eta kondairak.
Kirikú (filma)
Fang bi kondairen analisisa.
- Emakumeen egunerokotasuna Afrikan: *Las delicias de la maternidad*.
Aya de Yopougon (komikia).
- Bizirauten:
Orbainen literatura
Autobiografia lagunduak.
- Afrikako migrazioa: irakurketa komuna: Fatou Diome- *Las que aguardan*.
- *El peligro de una única historia*. Hitzaldia- Chimamanda Ngozie

2) EUROPAKO IDAZLEAK

- Migrazioa, generoan zeharreko fenomenoak.
- Mestizajearen literaturaren panoramika orokorra.
- Irakurketa komuna: Fatou Diome - *En un lugar del Atlántico*.
- Joan-etorriko idazle afrikarrak (Ken Bugul, Amma Dharko, Veronique Tadjou...).
- European bizi diren idazle afrikarrak (Calixthe Beyala, Buchi Emecheta, Agnes Agboton,
- Idazle afroeuroparrak (Marie Ndiaye...)
- Poetek kontatzen dutena: Jackie Kay.
- Nobela berriak: Chimamanda Ngozie *Americanah* (test arrazista).

Tramitatzailea: Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzua, Emakumearen Mahaiaren lankidetzaz.

Nork emango du: Ainhoa Aldazabal Gallastegui.

Hartzaileak: 18 urtetik gorako emakumeak.



Non eta noiz: Andretxea.

2024ko urriak 16, azaroak 6 eta abenduak 4 eta 2025eko urtarrilak 8, otsailak 5, martxoak 5, apirilak 2 eta maiatzak 7 (asteazkenak).

Ordutegia: 17:00etatik 19:00etara.

Ikastarora ekarri behar den materiala: Ez dute materialik ekarri behar.

Saioak doakoak dira.

Ikasle kopurua: gutxienez 8 ikasle, eta gehienez 20 ikasle.

Hizkuntza: gaztelania.

Aurrematrikula: ikastaroan izena emateko aurrematrikula egin beharko da **2024ko irailaren 1etik 25era (biak barne)**. Aurrematrikula egiteko **formulario bat bete beharko da elektronikoki ondorengo estekan:**

<https://formularioak.eibar.eus/eu/emakumeafrikarrenliteratura>

Kudeaketa arauak:

Matrikularako izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **irailaren 27an**.

Matrikularako izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gaituzten badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira. Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus) egongo da **irailaren 27tik aurrera**.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. Zozketa Gizartekintzan (Berdintasun Zerbitzua) egingo da. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: Eguna: **irailaren 27a. Ordua: 13:00**. Zozketa era honetan egiten da:

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztien zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat ematen zaio.
- Zaku batean sartzen dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratzen diren pertsonak zenbaki horretatik aurrerako zenbakiak dituztenak izaten dira, ikastaroa emateko dauden leku guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus) egongo da **irailaren 27tik aurrera**.

Oharrak:

Aurre-inskripzioen onarpenaren abisua jaso ondoren, behin betiko inskripzioa egin behar da eta ikastaroko lehen egunean dokumentu hau aurkeztu beharko da:

- **Munduko emakumeen literaturazko saioak: emakume afrikarren literatura** izena emateko inprimakia behar bezala beteta eta sinatuta.

Informazio gehiago: 943 543 938.